

Kalkulatu eragiketa hauek azalera unitateekin:

Adibideak:

- $3,6 \text{ km}^2 + 8940 \text{ dam}^2 = (\text{hm}^2)$

Gogoratu **m², dam²...** idatzi behar dela, adibideetan ikusten den bezala.

Dena hektometro karratura (hm^2) pasatuko dugu eta gero batuketa egingo dugu:

$$3,6 \text{ km}^2 (\text{hm}^2) = 3,6 \times 100 = 360 \text{ hm}^2$$

$$8940 \text{ dam}^2 (\text{hm}^2) = 8940 : 100 = 89,4 \text{ hm}^2$$

$$\text{Guztira} = 360 + 89,4 = \mathbf{449,4 \text{ hm}^2}$$

- $4 \text{ m}^2 \ 95 \text{ dm}^2 - 14583 \text{ cm}^2 = (\text{Era konplexua})$

Dena unitate berera pasatuko dugu (nik dena metro karratura pasatzea aukeratuko dut), gero kenketa egingo dugu, eta amaitzeko, era konplexura pasatuko dugu.

$$4 \text{ m}^2 \ 95 \text{ dm}^2 (\text{m}^2) = 4,95 \text{ m}^2$$

$$14583 \text{ cm}^2 (\text{m}^2) = 14583 : 10000 = 1,4583 \text{ m}^2$$

$$\text{Kenketa} = 4,95 - 1,4583 = 3,4917 \text{ m}^2$$

$$3,4917 \text{ m}^2 (\text{Era konplexua}) = \mathbf{3 \text{ m}^2 \ 49 \text{ dm}^2 \ 17 \text{ cm}^2}$$

Orain zure txanda da! Kalkulatu eragiketa hauek:

- $0,38 \text{ hm}^2 \times 4 = (\text{m}^2)$

EMAITZA:

- $8 \text{ m}^2 \quad 25 \text{ dm}^2 : 5 = (\text{era konplexua})$

EMAITZA:

- $148 \text{ dam}^2 + 0,067 \text{ hm}^2 = (\text{m}^2)$

EMAITZA:

- $21 \text{ hm}^2 - 236 \text{ dam}^2 = (\text{era konplexua})$

EMAITZA: